

FERMIN MUGURUZA&AFRO-BASQUE FIRE BRIGADE TALKA TOUR 2007

Eszenatokira itzuliko da. Hiru urtez zuzenean aritu gabe egon ondoren, garapen pertsonalerako ekintza eta sormena bizimodu eta abiaburu dituen eszenatokiko animaliairean buelta da hau.

Hiru urte pasa dira agur esan zuenetik Bilboko jaietan, 30.000 lagun en aurrean, bi urteko etengabeko biraren itxieran (2003an, Manu Chao eta Radio Bembarekin batera eginiko “**Jai Alai Katumbi Express**” mitikoa; 2004an, Kontrabandarekin eginiko “**Komunikazioa Tour**” bira guztien bira).

Huraxe zela azken bira iragartzeaz aparte, jendaurrean aritzeko formatu berriak ikertzeko beharraz ohartarazi zuen. Eta horrela ibili da erdi-ezkatuko izenekin jolastuz: Dj Laia, Kontrakantxa FM, FM hirukote akustikoa edo Basque FIRE Department.

Dena dela, 2006an, “**Euskal Herria Jamaika Clash**” nazioartean jada gorai patutako diskoaren argitalpenarekin batera, Kingsston-go Tuff Gong eta Big Yard estudioetan grabaturikoa, Muguruzak musikari euskaldun eta jamaikarrez osaturiko taldea elkartu zuen lan hau Barakaldoko BECen aurkezteko. Azaroaren 11n izan zen hori, koherentzia eta entrega eskertu zioten bertan bildutako 12.000 lagunek. Besarkaden jaialdia izan zen, eta honen ostean, gaur egungo errealitatean parte hartzeko beharra sentitu zuen Muguruzak. Horregatik, banda elkartu egin du eta 2007ko apiriletik abuztura bitartean iraungo duen biran arituko dira.

Fermin Muguruza Talka Tour 2007 izeneko birarekin eta **AFRO-BASQUE FIRE BRIGADE** talde berriarekin itzuliko da. Alde batetik, betiko laguntzaile-ekintzaileak izango ditu: Mikel Abrego (bateria), Sorkun (ahotsak), DZ (platerak), Xabi Solano (trikitixa), Oskar Benas (gitarra), Jon Elizalde (tronboia), Fino (saxua) eta Lonbi (tronpeta). Bestaldetik, errefortzu berriak izango ditu: Kubatik Víctor Navarrete (baxua) eta Leo Rodríguez (perkusioak); Jamaikatik Franklin “Bubbler” Waul (teklatuak), Black Uhuru talde mitikoan aritutakoa, eta Stephanie Wallace (ahotsak), Anthony B-ren backing vocal, besteak beste.

Beraz, hamahiru musikari arituko dira zuzenean **Talka –danbatekoa, topaketa, borroka- Tour** eskaintzen, musikaren munduan 25 urte beteko dituen Muguruzaren ibilbide oparoa birpasatzen, berbisititzen, aldarrikatzen: nahitaezko Kortatu taldeko garaiak, erreferentziazko Negu Gorriak taldekoa, gaur egungo bide anitzeko lan ugariak.

Hemen dago berriro pertsonaia publikoa, iritzi sortzailea, beti borborka dagoen musikari handia, bere aukera guztiak miazteko eta modurik azkarrenean bideratzeko gai dena, hemen dago berriro bere imitaezinezko presentzia eszeniko eta komunikatzailearekin, talde bakarra eta errepika ezina lagun duela. Ez dakigu zenbat denbora itxoin beharko dugun 2007 honen ondoren. Beraz, aurrean Fermin Muguruza&Afro-Basque Fire Brigade taldearen deia entzuterakoan, premiazko hitzordua izango dugu TALKA TOUR 007aren edozein geltokitan.

Amaia Apaolaza

[Talka Tour 007 Komunikazio Dep.]